



ETXEBIZITZA DUIN ETA EGOKI BATERAKO ESKUBIDEA BERMATZEN DUEN LEGE BATEN ALDE

Etxebizitzarako Eskubidearen alde deituriko Legea ari da prestatzen Gobernuak; gainera, badirudi legearen zirriborroa berehalakoan sartuko dela Ministro-Kontseiluan eta ondoren Kongresura bidaliko dela eztabaidatu eta onartzeko.

Giza eskubide hau erabat urratu den 42 urteren ostean, azpimarratu behar dugu Lege berria paper erre izango dela lurralde osoan Eskubide hori babestu eta bermatzen ez badu. Gai honetan estatu mailako lehen legea izateak eskaintzen digun aukerari ez diogu ihes egiten utziko, funtsezko eskubide hau betetzean aurrerapen historikoa lortzeko.

Krsi habitazionala ukaezina da: 32.000 pertsona baino gehiago “etxebizitzarik gabekoa” ari dira jasaten, 12 milioi gizarte-bazterkeriaren arriskutan, milioi bat etxegabetze baino gehiago¹ 2008 eta 2020ko 3. hiruhilekoaren artean, horietatik asko neurritz gabeen klausulen eta estandar europarrekiko aurkako legegintza baten bidez burututa, kontuan hartu gabe, tartean adingabekoak edo mendeko agureak daudela. Horregatik, behean sinatzen dugunok ez gaude prest finantza sektoreek, eraikuntza-enpresa handiek eta “putre funtsek” Lege honen testua erabaki dezaten uzteko. **Espekulatzaileen presioen aurka, gende arruntari dei egiten diogu, gure herrian giza Eskubide honen babesa ziurtatzeko beharrezko mobilizaziora elkartzeko.**

Espanian, populazioaren % 36,1 bere diru-sarreraren % 40 baino gehiago etxebizitza eta oinarerizko hornidurak² ordaintzeko erabiltzen du, eta beste milaka familia gazte ezin daitezke osatu: izan ere, 18 eta 29 urteren arteko populazioaren % 18,5a baino ez da emantzipatu³ etxebizitza egonkorra lortu eta mantentzeko oztopo handiengatik.

EINaren arabera (2011) 3,4 milioi etxebizitza huts dagoen bitartean, horietako asko edukitzaile handien eskutan, Etxebizitza Publiko eta Sozialaren Parkea Europako beste herri garatuak baino 7 eta 10 aldiz arteko txikiagoa da.

¹ Judiziala-Organu judizialeetan krisiaren eragina (Azken berrikuzpena 2020-12-06)
<http://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Temas/Estadistica-Judicial/Estadistica-por-temas/Datos-penales--civiles-y-lab-orales/Civil-y-laboral/Efecto-de-la-Crisis-en-los-organos-judiciales/>

² OCDE 2019: www.oecd.org/housing/data/affordable-housing-database/housing-conditions.html

³ Gazteriaren Kontseilua:
www.cje.org/en/our-work/empleo/actividades-y-campanas-del-cje/observatorio-joven-de-emancipacion/



Espanian, etxebizitza sozialak etxebizitza nagusien parkearen % 2,5 dira, zerikusirik ez gure inguruneko herri europar batzuren portzentajeekin⁴ (Holanda % 30, Austria % 24, Erresuma Batua %17,6, Frantzia % 16,8).

Bankuak erreskatatzeko, itzuli ez diren diru publikotik 60.000 milioi baino gehiago eman ondoren, **bidezkoa da Lege berriak jasaten dugun larrialdi habitazionalari aurre egin behar izatea**. Horrela, behar duenari etxebizitza bat bermatu behar zaio, etxebizitza publikorako politiketan behar adinako aurrekontuaren bidez eta legezko mekanismoak ezarrita higiezin-krisiaren finantza errudunak behartzeko **gizarte erantzukizuna bere gain hartu eta, horrela, espekulazio-burbuila berriak sahies daitezten**.

Urte gehiegi daramagu, milioika pertsonen bizitza eta osasunaren ginetik beren etekin pribatuak jartzen dituztenen ondorioak jasaten. Garaia da, Administrazio publikoek bere erantunkizuna bere gain hartu eta guztiok merezi dugun garapen pertsonala, integritate fisikoa, duintasuna eta beste funtsezko eskubideetara sartzea zaindu eta bermatzeko bere betebeharrari eutsi diezaion.

Manifestu hau sinatzen dugun erakundeok indarrak batzen ditugu, estatu mailako hiritarren mobilizazioa bultzatu eta Etxebizitzarako Eskubidearen aldeko Legak, lurralde osoan, ezarpen zuzeneko, gutxienez, 8 neurri hauek jasotzea lortzeko:

- 1. Legeak etxebizitza duin, eskuragarri, lortzeko modukoa eta egokia bermatu behar du, eskubide subjektibo gisa, babes hori eraginkorra izatea bermatu eta inork "etxebizitzarik gabekoa" jasan ez dezala saihestuz.**
- 2. Etxebizitza duin eta egokia hautabidetzat eman gabe, pertsona kalteberen etxegabetzei **Stop**, eta baita edukitzaile handientzako alokairu sozial egonkorren derrigorrezkotasuna ere eta gainerako kasuetan, botere publikoek eman beharreko ostatu emate duin eta egokia.**
- 3. Alokairu sozialeko parke publikoa bermatu eta zabaltzea, gutxienez, hogeitun etxebizitzen multzoaren % 20ra, lehentasunez, larrialdi habitazionalari aurre eginez.**

⁴ Observatorio de Vivienda y Suelo. Boletín especial vivienda social 2020. Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana, Etxebizitza eta Lursorurako ZO, argitalpen urtea: 2020
<https://apps.fomento.gob.es/CVP/handlers/pdfhandler.ashx?idpub=BAW072> .Iturria: Eurostat eta "Housing Europe" Behatokia.

⁵ Kontu Auzitegia:

<https://www.tcu.es/tribunal-de-cuentas/ca/sala-de-prensa/noticias/El-Tribunal-de-Cuentas-aprueba-la-Nota-de-fiscalizacion-de-la-situacion-a-31-de-diciembre-de-2018-del-proceso-de-reestructuracion-bancaria/>



4. **Alokairuen estatu mailako araudia, zonalde bakoitzeko langileen soldatei egokitutako prezioetan.** Hiri-errentamendu legea aldatzea, herri osoko maizterrei babesa eta egonkortasuna emateko.
5. **Ur, argi, gas eta telekomunikazioetararako sarbidearen oinarritzko hornidurak bermatzea,** etxebezitza duin baten zati bezala, arrakala digitala saihesteko.
6. **Zor hipotekarioak dituzten etxebizitzetarako beste bigarren aukera eraginkorra bermatu** eta gainzorpetzearen eta finantza- eta higiezin-gehiegikerien aurkako neurriak hartzea.
7. **Etxebizitza sozialerako eta etxebizitza arloko gizarte politiketarako aurrekontua gehitzea,** parke publikoaren batezbesteko europarrari iritsi arte, gutxienez, estatuko aurrekontuaren % 2 zuzenduta. Helburu honetarako, berreskuratze funts europarren behar adina zati esleitzea.
8. **Populazioaren partaidetza eraginkorra etxebizitza eta hirigintza politiketan.**

Etxebizitzarako Eskubidearen aldeko Legeak kaltetuen eta gizarte zibilaren eskakizun hauek kontuan hartu eta pertsonen duintasunari eta Giza Eskubideei dagozkienak, eta autonomia erkidegoetako lege aurrerakoenak eta bete daitezkeenak blindatzea **ezinbestekoa da,** behin-behingo, **EESKNIari**⁶ eta Nazio Batuen eta Auzitegi Europarren irizpinei, bere ezarpena ondorengo garapen arauemaileei itxaroten atzeratu gabe.

Konstituzioaren eta estutuen aginduz, Autonomia Erkidegoei dagokie etxebizitza politikak definitu eta garatzea baina, bizitzarako konstituzio eskubidea erabiltzean herritarren berdintasuna bermatzen dituzten funtsezko baldintzak ezartzea Estatuaren utziezineko eskumena da, behar-beharrezko eskubide honen oinarriek komunak izan behar dutelarik, Konstituzioaren 149.1.1. artikulua araber.

Neurri hauek babesten dituen gizarte gehiengoa eta baita parlamentukoa ere dago, baina, garbi daukagu populazioaren mobilizazioak baino ez duela lortuko Lege hau Etxebizitzarako Eskubidearen bermea izatea.

Elkar zaitetz! Ez geratu etxebizitzarik GABE!

⁶ Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Ituna <https://www.ohchr.org/sp/professionalinterest/pages/cescr.aspx> (Espainiak Ituna eta Hautazko Protokoloa sinatu zituen, ondoren, 1997-4-27an eta, hurrenez hurren 2010-9-23an berretsi zituen.)



Manifestua bultzatzen dituzten erakundeak

- HKP
- Inor etxebizitzarik gabe Mugimedua
- Maiztarren sindikatua
- Entrebarris
- JOC
- Kataluniako Mareen eta Gizarte Mogimenduen Ituna
- Herritarren Errenta Bermatuaren Batzorde Sustatzailea.
- Pentsioen Sistema Publikoaren defentsarako Estatu mailako Koordinakundea (COESPE)
- Kataluniako langabezia dauden langileen Batzarren Koordinakundea.
- Hirugarren Gizarte Sektorearen Taula d'Entitats.
- Konfederazio Intersindikala - KI
- Confederación General del Trabajo - LKO
- Langile Batzordeak - CCOO
- Langileen Batasun Orokorra -LBO
- Observatori DESC.
- Pobrezia energetikoaren aurkako ituna
- Madrileko Etxebizitzarako Eskubidearen aldeko Ituna.
- Monitorizateko DESC taldea.
- Putre Funtsen aurkako Plataforma.
- Espainiako DESC Plataforma

Manifestuari atxikimendua eman dioten erakundeak

- Valentziako Intersindikala
- Kataluniako Marea Zuria
- Valentziako LKN
- Valentziako Decidim, Plataforma pel Dret a Decidir
- Gosearen aurkako Aulkiak
- Oinarrizko Marea
- ATTAC Espainia
- Kataluniako Marea Zuria
- 5+1 Egoitzen Koordinakundea
- Ur Publikoaren Sarea
- IAC
- Abrir Brecha
- COBAS
- Afectados BB Serveis
- CAES
- EL ROGLE
- Valentziako Marea Zuria Comarques del Sud
- Audita Ciudadana de la deuda en Sanidad (Audita Sanidad)
- FAVB, Federació d'Associacions Veïnals de Barcelona
- ATTAC acordem
- Marea Colomense
- Marea Pensionista de Catalunya ● Abrir Fenda
- Oficina popular de vivienda – Valladolid
- Intersindical Salut
- Rebeldía
- COS de l'Horta
- Obrir Escletxa

